

NERE CHORIA

I

Chori polita t'egalariya
badet kayolan gordia...
Zertan gorde-ta, zertan lotu-ta,
zergatik burdin-saria
zayoke toki ertzia?
Zotzetik-zotze urduri dabil
asaldaturik guzia,
ichumustuban burdin-tartian
makeztuz anka chikia...

T'aurrian bere jabia,
batere ajola gabia!
ezpaitu noski nabaitzen ego
erpin odolez gorria,
eta choriak *chius* dariyon
oñaze bizi bizia!

II

Chori polita t'egalariya
badet kayolan gordia...
Polita nolaz ezpaititu-ta,
politen arrotaldia,
taju lerdena, ayur ponpoxo,
lepa ta buru zutia?
Okil da kixkur, uskarra dago
kayolan chori iltia;
edozein igi, zarataldian,
arren isu ta larria!

T'aurrian bere jabia,
batere ajola gabia!
t'etzayo-otutzen, chorichuari
letzayokela obia,
charo-sasitan orbel bultzaka
arro dabillen aizia:
anchen bakarrik choria lerdan
soñu ederren jolia,
baso ta mendi, ibar t'erreken
ostalar maite-maitia.

III

Chori polita t'egalariya
badet kayolan gordia...
Egalariya nolaz diteke
kayol-barrenez, ordia?
Ain da laburra egokadatan
zotzez-zotzeko bidia,
t'onuntz t'aruzko ibil-izpiyen
birapen choratzalia.

T'aurrian bere jabia,
batere ajola gabia!
t'etzayo-otutzen, chorichuari
letzayokela obia
charako egurastia,
t'illun dirauten gaba luzetan
etzan da gorde-tokia,
baseche batek sapayan dauzkan
babes ta garitegia.
Atoz bai, chori chikia,
biur pixkor t'atzarria!...
idiki nai det lotu zakarren
kayol-burdiñen atia.
Zoaz, bai, bañan mendiz bazabiltz,
nitztaz gogora zaitia,
naiz egun, naiz gaberdia,
biali zure-abestia,
t'abesti goxo-orren susmutan,
irriñik leyo-tartia,
egon diteke zuk laga dezun
jauregi-echeko nausia.

DONOSTI

